

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Asuntxi Gallastegi Gabilondo

*Bergara,
Gipuzkoa
(1933)*

Aurkibidea



Biografia



Barrenkalen jaioa. Sei senide ziren, lau neska eta bi mutil. Ama bertakoa zuen, eta aita Zapatarikotik bertara ezkondua. Don Juan apaiza, osaba, beraiekin bizi zen. Amak denda batean egiten zuen lana, eta aitak Zapatarikoako biltegian. Sei urte zituela istripua izan zuen, eta aitonak sendatu zuen; ezaguna zen herrian, apurtutako hezurrak konpontzen zituelako. Zapatarikoan egon zen sendatu arte, eta bertan geratu zen bizitzen. Enseñanzen ibili zen eskolan, 18 urtera arte. Eta gero Labe Garaietan hasi zen lanean, bulegoan. Musika karrera ere egin zuen, Jesusa Enekotegik prestatuta. Ondoren bera ibili zen bere kontu piano eskolak ematen. Bergarako Orfeoikoa izan da urte askoan.

Zintak

BER-319

- **Proiektua:** Bergarako emakumea eta lana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2013-01-23
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

BER-320

- **Proiektua:** Bergarako emakumea eta lana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2013-01-23
- **Iraupena:** 39 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Familiaren jatorria: Barrenkale eta Zapatarikoa

- **Erref:** BER-319/002
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:00:28. **Bukatu:** 00:02:47

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Barrenkalen jaioa da. Ama Barrenkalekoa zuen eta aita Zapatarikoa. Taberna zegoen tokian bizi ziren lehen. Amamaren jatorria. Osaba Bentura. Aitajauna merkataria zen, eta biltegia jarri zuen gero. Aitak han egiten zuen lana eta amak Barrenkalen, dendan. Aitajauna abarkagilea zen, Pedro Agerre, Elosukoa; dendan baserriko gauzak saltzen zituzten.

2. Sei anai-arreba ziren

- **Erref:** BER-319/003
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:02:47. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Sei anai-arreba ziren, bera hirugarrena. Lau neska eta bi mutil. Umetan denek heziketa bera izan zuten etxean. Osaba apaiza beraiekin bizi zen. Etxeko lanak egiteko neskamea zuten. Sesmaneko janari denda zuten ondoan, eta handik ekartzen zuten jatekoa.

3. Auto istripua izan eta aitajaunak osatu

- **Erref:** BER-319/004
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:07:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Auto istripua izan zuen Zapatarikoan, sei urterekin. Barrenkaleko aitajaunak hezurak konpontzen zituen, eta berak osatu zuen. Etxean egon zen denboraldi batez, baina gero Zapatarikora joan zen bizitzera. Amak zaintiratuak osatzen zituen; aitajaunak apurtutako hezurak ere bai. Opariak egiten zizkieten horregatik, pastelak eta. Bera oso ondo geratu zen. Kanaberak jarri zizkion, igeltsuarekin. 40 egunez-edo.</p>

4. Zapatarikoan zegoen giroa

- **Erref:** BER-319/005
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:07:56. **Bukatu:** 00:09:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Zapatarikoan zegoen giroa. Telefonoa zuten, eta jende asko joaten zen. Biltegira baserritarrak. Tabernatik hara joaten ziren. Dendan aitaren arrebak egoten ziren.

5. Enseñanza mediapensionista

- **Erref:** BER-319/006
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:09:34. **Bukatu:** 00:12:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Enseñanza ikasi zuten lau ahizpek. Mediapensionistak ziren beraiek. Ezin zuten internekin hitz egin. Ezta externekin ere; haiek debaldekoak gutxiagotzat zituzten. Batxilerra ikasi zuen, baina ez zieten titulurik eman. Musika ikasi nahi zuen, baina horretarako interna izan beharra zeukan. Aparte ikasi zuen berak, Jesusa Enekotegirekin; maistra zen Bilboko kontserbatorioan eta kontzertuak ematen zituen. Bidegurutzean bizi zen. Haren ahizpa modista zen. Beste ahizpa bat Mujika ferreteriakoarekin ezkondu zegoen.

6. Jesusa Enekotegi musika irakaslearekin ikasten

- **Erref:** BER-319/008
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:13:42. **Bukatu:** 00:15:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Enekotegi maistra. Solfeo eta piano erakusten zituen. Bilbon bizi izan ziren eta gero Bergaran. Eskoriatzan familia zuten. Bere ahizpa, Maria Jesus Inza, Arrasateko beste neska bat, Ana Mari Azkarate... ere joaten ziren ikastera. Baita Perico Basterretxea ere.

7. Nolatan hasi zen piano eskolak ematen

- **Erref:** BER-319/009
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:15:04. **Bukatu:** 00:18:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Musika zaletasuna etxetik zetorkion. Enekotegi Zapatarikoen urrutiko senidea zen. Mutilak seminaria eta neskak mojetara, baina ez batzuek ez besteek ez zuten kanpora joaterik izan. Gurasoek ez zieten kasu handirik egiten; bera ona zen pianoan, baina ez zuten baloratzen. Enekotegik eskatuta eskolak ematen hasi zen, Camachotarrei. Gero etxean hasi zen. Lehen ikasleak: Pili Manso, Maria Carmen Gallastegi eta bere ahizpa, Bolibarkoa... lagun kuadrilla bat.</p>

8. Bergarako musika irakasleak

- **Erref:** BER-319/010
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:18:39. **Bukatu:** 00:21:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Bergaran solfeo ikasteko aukerak, Enekotegiz aparte: Enseyanzen eta bandako zuzendaria, Migel Gonzalez Bastida. Neskei ere ematen zien hark. Bere amak ere pianoa jotzen zuen; haren pianoarekin hasi zen bera, Barrenkalen. Baina Zapatarikoan bizi izan zen, izebarekin bizitzera joan zen arte. Aldi berean 30 lagun prestatzera iritsi zen. Ofizian ere egiten zuen lana. Berak Bilbon egin zituen karrerako azterketak, baina bere ikasleek Donostian.

9. Bilbora azterketak egitera; pianoa alokatu

- **Erref:** BER-319/011
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:21:17. **Bukatu:** 00:25:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Bilbora joaten zen azterketak egitera. Ganbera musika ere egin zuen; azterketa kontzertu modukoa da. Piano karrera zazpi urtekoa da. Solfeoa laukoa. 17 urterekin amaitu zuen berak. Enseyanzen pianoa alokatzen zuen, bi ahizpek ezin zutelako etxeko pianoan ikasi. Dena bikain atera zuen, ikasgai bat izan ezik. Erraztasuna zuen. Etxean ez zioten garrantzirik eman bere dohainari, baina mutila izan balitz ere berdin izango zela uste du.

10. Zerrajeran hasi zen lanean

- **Erref:** BER-319/012
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:25:27. **Bukatu:** 00:26:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>18 urte arte mojetan ikasi zuen, eta Zerrajeran hasi zen lanean. Oposaketak atera zituen. Kultura orokorra ikasi zuen. Mekanografia bazekien, takigrafia ez; etxean ikasi zuen, Zapatarikoako bulegoko idazmakinan.</p>

11. Bulegoko neskak

- **Erref:** BER-319/014
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:26:53. **Bukatu:** 00:28:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Bulegoan denak batera zeuden. Bera kontabilitatearekin hasi zen, laguntzaile moduan. Neska dezente zeuden, bospasei. Bulego handia zen, behealde guztia. Don Jose Maria Agirre zen arduraduna. Amelia Iza zen denbora gehien zeramatenetako bat.

12. Lan ordutegia eta baldintzak

- **Erref:** BER-319/017
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:32:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

09:30ean sartzen ziren, Bergaran, baina Arrasaten 08:00etan. 13:00etan Bergarara bazkaltzera joan, eta 14:30erako buelta. 1968an hasi zen Arrasaten. Grebak ere ezagutu zituen han. 70eko hamarkadan hasi ziren grebak. Lehen soldata zerrajeran: 662 ala 762 pezeta hilean. Ondo irabazten zen han. Urte onak ziren. Ez ziren arduratzen ondokoak kobratzen zuenaz, konforme bizi ziren.

13. Oporretan eta denbora librean

- **Erref:** BER-319/019
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:33:58. **Bukatu:** 00:35:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:

Hamar egun opor izaten zituzten. Ez ziren inora joaten. Manso ahizpak, Luz

Telleriarte... horiek oso aurreratuak ziren; Kataluniara joan ziren oporretan, Sitgesera. Oporretan Ondarroara joaten zen, Saturraranera. Igandetan dantzara. San Juanera ogitartekoarekin. Debara joaten ziren hondartzara; batzuetan auto-stop eginda, bestetan trenez.

14. Debara familia osoa

- **Erref:** BER-319/020
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:35:59. **Bukatu:** 00:37:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Umetatik zuen bainujantzia. Lau zaharrenak bainujantzian agertzen dira erretratu batean. Berdin jantzita joaten ziren askotan. Puntuzkoak ziren. Aitak automobila zeukan, eta Debara joaten ziren umetan. Aita lapa bila ibiltzen zen.

15. Erromeriak eta zinema

- **Erref:** BER-319/021
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:37:23. **Bukatu:** 00:39:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Erromeriara Zubiaurrera, San Antoniora... Zinemara asko joaten ziren. Eskolatik irten igandetan eta Anbrosionera joaten ziren. 3R eta 4R ezin ziren ikusi. San Martzial egunean beti joaten ziren. Umetan dantza egiten zuten anaiak eta biak.

16. Emakumeak galtzekin oso berandu arte ez

- **Erref:** BER-319/024
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:40:17. **Bukatu:** 00:41:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Ez da mendizalea izan. Zapatarikotik kobazulo batera joaten ziren sarri. Gona erabiltzen zuten mendirako ere. Maite eta Nere Mujika izan ziren galtzak janzten lehenengotakoak Bergaran; Maite Frantzian egon zen eta Nere Salamancan ikasten.

17. Emakume erretzaileak

- **Erref:** BER-319/025

- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:41:37. **Bukatu:** 00:43:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

14-15 urterekin erre egiten zuten. Izebak esaten zien itxurakeria zela hori, dotorea zela uste zutela. Amonak defendatu egiten zituen; esanaz baserri bateko emakumeak pipan erretzen zuela, bronkiotarako ona zela eta. Anaiak komunera sartzen ziren erretzera. Zapatarikoan denen aurrean erretzen zuten.

18. Josten ikasten

- **Erref:** BER-319/035
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:58:01. **Bukatu:** 00:59:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Josten ibili zen ikasten, Mugerzan. Laskurain alkatearen amarekin. Ugalde zen, baserritarra. Barrenkalen bi ahizpa zeuden, bata maistra, frontoian zeukan eskola eta besteak korte erakusten zuen; tailer bat zeukan. Kontxita eta Juanita Maiztegi.

19. Lehenengo kafetegia, Lorelei

- **Erref:** BER-320/001
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeak ez ziren tabernetara joaten. Bolintxo okindegia zegoen tokian jarri zuten lehen kafetegia, Lorelei. Sanmartzial egunean deportibora joaten ziren, baina bestela ez. Pasteleriara joaten ziren pastelak jatera.

20. Estraperlo garaia eta telefonoa

- **Erref:** BER-320/007
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:08:36. **Bukatu:** 00:11:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Telefonistak emakumeak izaten ziren. Barrutin telefonorik ez zuten. Estraperlo

garaian nola ibiltzen ziren, inspektzioa zetorreanean. Bere amonak ogia egiten zuen; atzeko biltegia irinez beteta zutela, Bonbulukoena. Kontrol zorrotzak izaten ziren.

21. Koltxonerak eta traperak

- **Erref:** BER-320/011
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Koltxonerak. Bata frontoian bizi zen eta bestea Zubietan. Beraienara Zubietakoa joaten zen. Zapatarikoara ere joaten ziren. Askatu, artilea atera eta harrotu egiten zuten. Solana traperaren biltegia. Matilde traperak famatua zen, San Antoniokoa.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com